

# Frantsesaren irakaskuntza lanaren alorrean Quebec-en

**Linda Poirier\***

## HIZKUNTZA FRANTSESAREN KARTAREN AURRETIK

Quebec-eko Gobernuak 1977an *Charte la langue française* onartu zuenean hasi zen gure probintziako lantegien frantseztea.

101 Legearen aurretik, Quebec, Kanadako probintzia frankofono bakarrak (%80k baino gehiagok egiten du han frantsesez) ez zuen asmatzen frantsesez «bizitzen». Ikus ditzagun labur-labur arrazoiak.

Kanadak, 1968an elebidun egin zen lurraldeak, beste bederatzi probintzia ditu, gehiago anglosaxoia dutenak. Kanada bera bere osoan kontinente anglofono baten parte da, Iparramerikarrarena alegia. Quebec geografiaren aldetik isolatua egoteak frankofonoak ekonomia eta gizarte-kulturan historian zehar anglofonoen eraginpean egotea ekarri du. Era berean, ingelesa izan da, denbora luzean, Quebec-en lan eta bizitza publikoko hizkuntza. Gutxiengo anglofonoak elebitasunera

behartu zuen gehiengo frankofonoa. Sozialki, frankofonori gehienak soldaten mailarik apalenean zeuden. Elebidunak izanda ere, gutxiago ordaintzen zitzairen anglofono elebakardunei baino.

Injustizia sozial honek eta irentsiak izateko arriskuak jaiotze-tasa asko murriztu zuen 1960.az geroztik; eta, hala berean, frantses idatzi eta ahoskoa asko ondatu zen. Guzti horrek Quebec-eko Gobernuak Quebec birfrantseztu eta indarrak frankofonoen mesedetan berrorekatuko zituen lege bat martxan jartzera eraman zuen.

## KARTA ETA LANAREN ALORRA

Orduz geroztik frantsesa bizitzako ihardun-eremu guztietan erabili behar da: lanean, justizian, legegintzan, administrazioan, merkataritzan, hezkuntzan...

Eta erabaki partikularrak hartu zizuten legegileek, lanaren alorra frantseztuari zegozkionak. Enpresako mai-

\* Linda Poirier anderea Centre de Linguistique de L'Entreprise-ko aholkularia da. Urte asko dira Poirier anderea CLERen lanetan partaide dela eta espezialista ezaguna da lanaren alorrean bigarren hizkuntzen irakaskuntzan. Quebec-eko Unibertsitatean Hizkuntzalari-tzan diplomatu da, frantsesa bigarren hizkuntza gisa irakasten espezialdua, eta beregain dauka CLEK hainbat enpresatan (IBM - Canada, besteak beste) bigarren hizkuntzen irakaskuntzan egiten dituen lanen gainbegirada pedagogikoa.

la guztietan frantsesez hitz egiteko gauza direnak gehitzea aurriztatu du, administrazio-kontseilua barne, hizkuntza frantsesa denean erabiliko dela ziurtatuz.

Hiru erakunde sortu zituen Charte de la langue française-k. Horietan bat Office de la langue française delakoa (OLF) da, hizkuntzaren ikerketa eta terminologiaz arduratzen dena, beti ere administrazio eta enpresa frantseztoko xedez. Office-ak behar duenarentzat frantseztoko programak prestatzen laguntzen du eta bere gain dauka azkenaraino ekintza horien kontrola; era berean, legea unez une aplikatu dadin zaintzen du.

## LAN-MUNDUAREN FRANTSEZTEA

Bi elementu garrantzizko daude enpresa frantseztoko prozeduran: laneko dokumentuak eta langileak. Bigarren honi bakarrik helduko diogu.

Bere langileak frantseztoko, enpresak egin dezake:

1. Frantsesez lan egin ahal izateko hainbat ezagutza dituzten langileak hartzea erabaki, lanpostuen hizkuntz eskakizunak errespetatzeko behar diren sustaketa eta aldaketa-politikak ezarri.
2. Lehendik dituen langileei hizkuntza irakasteko programak eskaini, frantsesez lan egiteko gauza egingo dituzten ezagutza-maila lortzen.

Bigarren aukera honetarako, enpresak beregain hartzen ditu kostuak, lan hori bere langilegoaren hezkuntza profesionalaren parte joaz. Hizkuntz irakaskuntzaren xedea funtsean enplegatua honako honetarako gaitasun funtzionalen jabe egitea bait da:

- laneko bileretan aktiboki parte hartzeko;

- bere egitekoarekin zerikusia duten argibide ahozko eta idatziak ulertzeko;
- bere lanean behar duen dokumentu oro idazteko.

Normalean, enpresak erabakitzen du laneko estamentu bakoitzean zein frantses-maila beharko duten langileek. Horretarako, hortxe daukate arduradunek OLFek ezarritako bost mailen erreferentzia. Lanpostuen hizkuntz eskakizunak finkatu ondoren, enpresak bere langileen benetako hizkuntz maila egiaztatuko du eta bete beharreko premiak eta hartu beharreko hezkuntza erabakiko.

Jakitea merezi du gaur arte frantsezte-lanetan ari direnek aurkitu dutela langileetako asko frantsesez «funtzionatzeko» gauza direla. %20ak zuen, gehien jota, frantseztu beharra. Langile horien artean jestionatzaileak eta jendearekin zuzeneko harremanak zituztenek izan zuten lehentasuna. Obligaziozko programetatik kanpo geratu dira erretirua laster hartuko dutenak. Oraingoz, 100 langile baino gehiagoko enpresen %45ak lortu du OLFen frantsezte-ziurtagiria. 50etik 100 arte langile dituzten enpresetan %75era iritsi da ziurtagiridunen kopurua. Era berean, 4 edo 5 urtetan ezarri da enpresarik gehienek hizkuntz hezkuntzan behar duten epea.

## CLE-REN IRAKASKUNTZ PROGRAMA

Enpresen Hizkuntz Zentruko (Centre de Linguistique de l'Entreprise) kide diren lantegiek erakunde horrek frantseztoko programak prestatu eta ezartzen eta frantsesa lanaren munduan irakasten duen eskarmentuaz baliatzeko aukera dute.

Horretarako, Office de la langue française-k emandako arauen ildotik, CLEk frantsesa ikasten hasi eta OLF 3

maila iritsi behar duen helduarentzat 660 bat ordu izango dituen programa bat eskaintzen du. (OLF 3 da «frantsesaren ezagutza ona: langileak frantsesez lan egiteko gauza da, baina ez du frantsesez korriente egiten».) Goi-maila lortzeko (OLF 4), hau da, «frantsesez ondo jakitea: langileak frantsesez lan egin dezake eta frantsesez korriente hitz egiten du», ikaskuntza beste 390 ordutan luzatuko da. Esan gabe doa egoera aldatu egiten dela ikasle batetik bestera, segun eta gaitasunak, motibazioa, lanean, hartutako ezagutzen erabilera eta murgiltzeko aukerak nola-koak diren.

## **HIZKUNTZ IRAKASKUNTZ PROGRAMA- MAREN ANTOLAKUNTZA-TIPOA CLE-N**

### **I. Ikastaroen antolakuntza**

#### *1. Aurre-etapak*

- a) Langileen hizkuntz ezagutzen neurketa sailkapen-test komunikatiboan bitartez (egoerak, elkarrizketa luzeak...).
- b) Langile bakoitzak, lanpostuaren hizkuntz eskakizunen arabera, behar duen ikaskuntzaren iraupena.
- c) Klaseen antolamendua, langileen ezagutza-mailen arabera.
- d) Ordutegia moldatzea, enpresako koordinatzaile linguistikoarekin batera. Enpresaren lehentasunen, ikaskuntzaren iraupenaren eta langileen disponibilitatearen arabera antolatuko da ordutegia.
- e) Langileen beharren neurriko ikastaro-formula desberdinak eskaintzea (ikastaro trinkoak, murgilketa, ikastaro partikularrak...).
- f) Enpresan frantsesez dauden material audio-bisualak eta dokumentuak ebaluatzea, hezkuntz programetan sartzeko.

#### *2. Irakasleak*

Gure programetan ari diren irakas-

leek denek dute hezkuntza unibertsitarioa eta helduei hizkuntza arrotzak eta bigarren hizkuntzak irakasteko prestakuntza. Malguak eta sormen handikoak behar dute izan, programek bezalaxe.

Horietako asko frantsesa bigarren hizkuntza irakasleen elkartetako kide dira.

### *3. Ikastaroen kontrola*

Honako kontrol hauek gomendatzen ditugu 90 orduko saioaldi bakoitzeko:

- a) Irakasleen lanaren ebaluazioa klaseko eta klasez kanpoko topaketa pedagogikoen bitartez.
- b) Ikasleen aurrerapen linguistikoaren kontrola emaitza-testen bitartez.
- c) Talde bakoitzeko langileen asistentzia hilabetez hilabete aurkeztu enpresako hizkuntz koordinatzaileari.
- d) Epe-bukaeran ikasle bakoitzaren txosten pedagogikoaren aurkezpena. Txosten honetan hizkuntz aurrerapenak eta ikasleen partaidetza azaltzen da.
- e) Ikastaroaren joanean eta bukaeran, CLEko hizkuntz irakaskuntzaren arduradunaren eta enpresako hizkuntz koordinatzailearen bilerak, programaren eraginkortasuna eta ezarritako helburuak lortzeko baliabideak ebaluatuz.

### *4. Irakaskuntza.*

Metodoak irakasleak bere lana egiteko tresnak dira. Etengabe egokitzen dira partaide helduen hizkuntz behar eta interesetara. Ikastaroak irakaskuntza komunikatibo/funtzionalaren bidez dabilta eta ikasleei komunikazio-maila minimora azkar heldu eta frantsesez beren kasa komunikatzeko dituzten abildadeak garatzeko aukera ematen diete. Irakaskuntza honako funtzio komunikatibo hauen haritik moldatzen da: sozialdu, berri eman, informatu, zerbait eragin, limurtu, elkarrizketak bideratu, iritzia eman.

Ikaskuntz prozesuaren barnean sartzen da enpresako dokumentuak erabiltzea (bideozko materiala, enpresaren barruko egunkariak...). Negozioen munduko aldizkari espezialduak, telebista eta irratiko emanaldiek ere oso euskarri egokiak ematen dizkiete. Baliabide hauek, irakaskuntza garatzeaz aparte, ikaslea ikasgai daukan hizkuntzaren errejistroetara jartzen dute.

## II. Programen edukia

### 1. Mailak

Lehen esan dugunez, frantsesez «funtzionatzeko» moduan jartzeko eta OLFen arauen neurritan, CLEk ikastaroak hiru maila handitan banatuak dauzka, eta hauek hainbat azpi-mailatan. Ondoan aurkituko duzue maila horien azpimailaketa eta bakoitzaren gutxi gorabeherako iraupena.

### 2. Ikastaroen ordutegia

Ikastaroen ordutegia lehentasunen, enpresako hizkuntz politikaren eta langileen disonibilitatearen arabera ezartzen da.

1. eta 2. mailetarako, ezarritako helburuak itxurazko epe batean lortzeko eta ikasleen motibazioari eusteko, astean gutxienez lau orduko ikastaroak gomendatzen dira biziki.

### 3. Ikasle-kopurua

Taldeko, gehienez hamar ikasle izango dira. Era berean, oso nahi izatekoa da ikasleak hizkuntz maila berekoak izatea. Alabaina, zenbait enpresatako diru-ekasiak hainbesteko homogeneotasunik gabeko taldeak osatzera eramaten gaitu.

## III. Idazketa administratiboko ikastaroak

Idazketa administratiboko ikastaroak laneko beharretarako beren frantsesa hobetu beharrean dauden langileei zuzenduak daude. Azken urte

hauetan gero eta gehiagok izen ematen dute, bai frankofonoek bai anglofonoek — gure enpresetako askok lortuak bait ditu ahozko frantsesaren helburuak.

## IV. Gorabehera materialak

Hizkuntz irakaskuntza enpresaren lokaletan maila bereko 10 laguneko taldeentzat ematearen kostua orduko finkatua dago. Esate baterako, CLEren hizkuntz irakaskuntzako zerbitzuak orduko 38\$ kobratzen ditu taldekako ikastaroengatik eta 36\$ ikastaro partikularrengatik.

Dirutza horretan ikaslearen hizkuntz ezagutzen maila neurtzeko testen kostua ere sartzen da.

Baina ez da material didaktikoaren kostua ezartzen, hori enpresaren gain bait doa.

## ENPRESAREN ARDURA IRAKASKUNTZA

Enpresa handi batzuek, batez ere 1977 eta 1987an, langile berriak, finkoak edo kontratu bidezkoak, hartzen dituzte beren langileak lanorduetan hez ditzaten. Hobeto zuzen zitekeen horrela irakaskuntza langileen beharrian espezifikotara.

Beste enpresa batzuek beren langileak erakunde ezagunek eskaintako ikastaroetan izan ematera bultzatzen dituzte, hau hobetsi dutelako. Jokabide honek beti ditu bere alderdi txarrak; esaterako, ikasleen behar bereziak batzuenak besteekin nahastea. Bestalde, gela bakoitzean ikasle asko egoteak nekez ematen du irakaskuntza komunikatibo eraginkorra egiteko aukerarik.

## BALANTZEA

Hamalau urte joan dira Charte de la langue française eman zenetik. Erresis-

tentziak erresistentzia, eta aurkako zenbait epai ere eman izan den arren, frantsesaren erabilera aurrera joan da Quebec-en, ihardun-eremurik gehienetan. Langile frankofonoak ugaritu egin dira eta hala berean enpresetako koadro frankofonoak ere. Frantsesaren erabilerak benetan irabazi egin du, batez ere dokumentu eta komunikazio idatzietan eta laneko bileretan. Populazioaren zati handiagora iritsi da terminologiaren zabalkundea eta frantsesez-

ko terminoen erabilera. Alabaina, tamalgarria da oraindik ere enpresa askotako goi-zuzendaritzak ez duela frantsesaren txostena bere gain eta, ondorioz, ez duela argi eta garbi, zehazki eta zalantzarik gabe legea onartu eta hizkuntz politika era esanguratsuan ezarri. Frantsezte-prozesuak etengabekoa eta finkoa izan behar du, enpresen eguneroko kudeakuntzan txertatua.

## FRANTSESA BIGARREN HIZKUNTZAKO IKASTAROAK

### Hezkuntz programa

| CLE Maila        | OLF Maila                       | MODULOAK                                                                         | IRAUPENA gutxi gorabehera                                      | ORDUAK guztira gutxi gorabehera |
|------------------|---------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|---------------------------------|
| Oinarrizkoa      | OLF 1                           | 1, A fasea<br>1, B fasea<br>2, A fasea<br>2, B fasea<br>3, A fasea<br>3, B fasea | 45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu | 270 ordu                        |
| Ertaina          | OLF 2                           | 4<br>5<br>6<br>7<br>8<br>9                                                       | 45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu | 270 ordu                        |
| Aurreratua       | OLF 3<br>ahozkoa                | 10<br>11<br>12                                                                   | 45 ordu<br>45 ordu<br>45 ordu                                  | 135 ordu                        |
| Frantses idatzia | OLF 3 idatzia                   | A fasea<br>B fasea                                                               | 60 ordu<br>60 ordu                                             | 120 ordu                        |
| Oso aurreratua   | OLF 4<br>ahozkoa eta idatzizkoa | Ahozko edo/eta idatzizko adierazpenaren hobekuntza, partaideen beharren arabera  | Aldiko erabaki behar                                           |                                 |

Kudeatzaileen egitekoa da frantsez-tearen helburuak ezartzea, behar diren baliabideak eskaintzea, egitekoak espe-ro diren emaitzen arabera banatzea eta, eskuhartuz gero, planak nola gau-zatzen diren kontrolatzea.

Frantsesa ez da oraindik ere «lane-ko, irakaskuntzako, komunikaziotako

eta negozioetako hizkuntza ohizko eta normala izatera iritsi». Quebec orain-dik ere, ekonomiaren aldetik, ingurune anglofonoan dabil. Sozio-kulturaren aldetik, eragin amerikano bortitzaren mendean dago. Beti beharko ditugu begiak erne eduki Iparramerikako hiz-kuntza frantsesaren bizitza eta garape-naren aurrean.

*Itzultzailea: Boni Urkizu*

## LA ENSEÑANZA DEL FRANCES EN EL MEDIO LABORAL EN QUEBEC

La francización del medio laboral represen-ta un factor clave en la refrancización de la provincia de Quebec. Las empresas deben lle-gar a ser funcionales en francés, ya que sus empleados no responden a las exigencias lin-güísticas de los puestos que ocupan.

El Centro de Lingüística de la Empresa ofre-ce a sus miembros un programa completo de enseñanza del francés en el medio laboral, conforme a las normas establecidas por la Ofi-cina de la Lengua Francesa. El programa se adapta a las necesidades específicas de cada una de las empresas: contenido de los cursos, reagrupamiento de alumnos, etc.

El objetivo principal de la enseñanza es de-sarrollar las competencias comunicativas de los participantes. Después de, entre otras co-sas, una formación de 4 ó 5 años, las empresas obtienen generalmente el certificado de franci-zación de la OLF (Office de la langue fran-çaise).

El uso del francés va progresando en los me-dios laborales, pero una francización estable y eficaz exige de la alta dirección de muchas empresas que hagan suyo realmente el dossier y establezcan una política lingüística que manifieste claramente la aceptación de la ley.

## FRENCH TEACHING IN THE WORK PLACE IN QUEBEC

The use of French in the work place repre-sents a key factor in the resurgence of French in the Province of Quebec. Businesses have been obliged to become functional in French, since their employees do not measure up to the linguistic demands of the positions which they occupy.

The «Centre de Linguistique de l'Entreprise» offers its members a complete programme of French in the work place, in accordance with standards set down by the French Language Office (l'Office de la Langue Française). The programme is modified according to the speci-fic needs of each company: course content, grouping of learners, etc.

The main aim of teaching is to develop the communicative competence of the participants. Following four or five years of training (among other things), the companies generally receive certification from the OLF.

The use of French in the work place is stea-dily gaining ground, but a stable and effective situation where French is the language of work requires commitment on the part of upper management and the establishment of a lin-guistic policy which clearly demonstrates acceptance of the law.

## L'ENSEIGNEMENT DU FRANÇAIS EN MILIEU DE TRAVAIL AU QUÉBEC

*La francisation des milieux de travail représente un facteur clé de la re francisation de la province de Québec. Les entreprises se doivent de rendre fonctionnels en français leurs employés ne satisfaisant pas aux exigences linguistiques des postes occupés.*

*Le Centre de linguistique de l'entreprise offre à ses membres un programme complet d'enseignement du français en milieu de travail et ce, conformément aux normes établies par l'Office de la langue française. Le programme s'adapte aux besoins spécifiques de chacune des entreprises: contenu des cours, regroupement des étudiants, etc.*

*L'enseignement vise avant tout à développer les compétences communicatives des participants. Après, entre autres, 4 à 5 ans de formation linguistique, les entreprises obtiennent généralement leur certificat de francisation de l'OLF.*

*L'usage du français progresse dans les milieux de travail, mais pour une francisation efficace et durable, il incombe à la haute direction de plusieurs entreprises de vraiment s'approprier le dossier, d'établir une politique linguistique qui signifie clairement l'acceptation de la loi.*